



Txanda bakoitzean, mahai desberdinetan hitz egindakoren bilduma

Solasaldiko lehen txanda: Zer esanahi praktiko eta zehatz dute zuretzat giza duintasunak, bizitzeko eskubideak, giza eskubideen zatiezintasunak eta antzeko kontzeptuek?

Pertsonaren duintasuna

Pertsona guztiak duinak dira jaiotzen diren unetik. Norbera duin sentitu behar da eta besteei duin sentiarazten lagundu ondoren.

“Bestea”, “beste” bezala onartzea da, pertsona bakoitzean dagoen onena aterez. Duintasuna, bizitza kalitatea da. Pertsonaren osotasunarekin lotua dago, alderdi kulturala, espirituala... kontuan dituelarik eta ez alderdi materiala soilik, norberak bere aukerak egiteko duen askatasunetik.

Desadostasuna dago giza duintasunaren oinarriak edo muina non dagoen zehazteko garaian. Inguruak, baloreak, marko politikoak baldintzatzen dute. Nire bizitza duinaren eskubideak gizarte kultura partekatua esan nahi du.

Giza duintasuna, giza eskubideetan juridikoki eta egunerokoan gauzaturik ez da errespetatzen, baina berauen kontzientziarioan aurrerapausoak ematen ari dira.

Giza eskubideei buruz

Giza eskubideek etika gorpuzten dute. Ipar orratza bezala dira, abiapuntua eta norabide zuzena ematen digute. Erreferentzia etiko eta moralak behar beharrezkoak ditugu. Itxaropen seinale dira. Giza eskubideetaz hitz egiten dugunean, eskubideetaz hitz egiteaz gain betebeharrak ere hitz egin behar dugu.

Orokorrean ezezagunak dira. “Potoloenak” (bizitzari errespetua...) ezagutzen dira eta nahiko barneratuak daude. Informazio asko dago giza eskubideen urraketa inguruan baina sentsibilitate falta handia dugu.

Inork ezin dio beste bati bizia kendu. Bizitza eskubidea, bizitza duin bat izateko eskubidea da, beldurrik gabe bizitzeko eskubidea.

Giza eskubideen urraketa guztiak ez dira era berean neurtzen. Batzuen ustetan giza eskubide guztiak maila berean daude, beste batzuentzat ordea mailaketa bat dago, batzuk oinarrikoak dira eta hauek ziurtatuak daudenean besteetaz hitz egiten has daiteke.

Kultura eta munduaren ikuspegi konkretu batetik pentsatuak daude eta hortik besteak epaitzeko egoera paregabearen sentitzen gara.

Giza Eskubideen Aldarrikapenari esker aurrerakuntzak egon dira hainbat gaitan: emakumearen egoera, lan eskubideak, estatu batzuetan legeak aldatu dira... Baina honek ez du bermatzen atzerapausoak izan ez ditzaketarik.

Unibertsalak izatea garrantzitsua da, mundu mailako etika absolutu baten beharra dugu. Unibertsaltasun honek, guztiak berdina gaita adierazi nahi du, behar eta eskubide berdina ditugula. Pertsonen eta herrien eskubideen arteko oreka bat ere izan behar da.

Erakundeek ere giza eskubideak urratzen dituzte eta horrela sinesgarritasuna galtzen dute. Nazio Batuetatik jartzen diren betoek Giza Eskubideen Aldarrikapenaren aurka doaz. Gobernuak, “desberdinak” diren eskubideen bermatzaile izan beharko lukete. Legeak eskubideak aitortu arren ez dituzte babesten. Egunerokotasunean ez badira bizitzen, Giza Eskubideen Aldarrikapena, aldarrikapen hutsa baino ez da izango. Giza eskubideek gure jarreraren izan behar dute islada. Eta horrela ulertuta, giza eskubideak bermatzea gutako bakoitzaren zeregina da eta ez gobernuena soilik. Egiten dena bezain garrantzitsua da egin behar eta egiten ez dena.



Solasaldiko bigarren txanda: Zure ibilbide pertsonal eta sozialetik begiratuta, zer harreman izan behar dute giza eskubideek immigrazioarekin, bazterketarekin...?

Gizartearen hainbat ezaugarri

Leku pribilegiatuan bizi gara, ongizate-estatu batean. Gizarte kontsumitzaile batean bizi gara. Gure kontsumoak beste herrialde batzuen egoeran eragina duela ohartu behar gara.

Gizarte indibidualista batean bizi gara, norbere buruan zentratua. Gizarte materialista honetan edukitzea, izatea baino garrantzitsuagoa da eta ekonomia pertsonaren gaintik dago. Elkartasunak eta talde lanak balorea galdu dute. Orokorrean baloreen galera dago. Bestea, desberdina dena, behartsua... soberan ditugu.

Gaur egungo sistema soziologikoak, sistema berean lehentasun ez diren beste gaiak alde batera uztera eramaten gaitu. Gizarte egiturak pertsonen duintasunari erasotzen dio, pobrezia sortzen duelarik. Ondo bizi den gehiengo batek gutxiengoaren eskubideei buruz erabakitzen du. Krisi ekonomikoarekin giza eskubideen urraketa areagotzen da.

Harreman erdua, orokorrean, aldatzen ari dira: gizon-emakume, guraso-semealaba... Gazteei adibidez, askatasun handia eman zaie eta errespetua galdu da.

Giza eskubideen urraketa gehien jasaten duten pertsonak

Gehien aipatutakoak honako hauek dira: inmigranteak, urritasuna duten pertsonak, transexualak (oraindik gaixotasun psikikoa bezala sailkatua) emakumeak, pertsona gaixoak (eutanasia, lagundutako suizidioa), adineko pertsonak. Parte hartzaileek gehien aipatu duten egoera inmigranteena da.

Herrialde batzuk munduko zilborra direla pentsatzen dute. Gerrateen bidez herrialdeak konkistatu, bertako kulturak desagertarazi eta beste kultura bat inposatzeko erabiltzen da.

Euskal Herrian inmigranteak hartzen esperientzia dugu. Ez dugu ahaztu behar gu ere inmigranteak izan gela eta ez dugula beti izan gaur egun dugun bizitza maila. Inmigranteek guk egin nahi ez ditugun lanak egiten dituztela badakigu eta gure eskuetan dagoen neurrian beraiei esplotazioa eragotzi behar dugu. Inmigrazioak onura ekonomikoa dakarkigu eta beste kultura batzuekin harremanetan izateak ere alderdi onak ditu guretzat.

Inmigranteekin beldur asko ditugu: lana kentzea, gure kultura galtzea, babes ofizialeko etxeak beraiei ematea... orokorrean gurea dela uste duguna galtzea. Beste batzuetan, inmigranteek bere portaerak, ohiturak, sinesmenak... inposatzen dizkigute eta horrek ere beldurtzen gaitu. Gehiengoaren kulturaren inposaketak, bereganatzeak... ikuspegi desberdinen arteko integrazio arazoak sortzen dizkigu. Bi alderdietan dago integrismo eta getoak sortzeko arriskua. Aniztasunak (kultura, jatorria...) errespetua eta elkarbizitza zailtzen du. Mahai gainean jarri behar ditugu gure beldurrak.

Integrazio egoki baterako, garrantzitsua da inmigranteek hasieratik bermatuak izatea guk ditugun eskubide berberak (etxebizitza, lana, osasun zerbitzuak...) hori egin ezean, bazterketa egoeran erortzeko eta bizi ahal izateko delitu-jarrerak azaleratzeko arriskua baitago. Gabeziek indarkeria bultzatzen dute.

Administratibotik baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzen ari dira. Pertsona batzuen ustetan gutxi dira eta beste batzuentzat gehiegizkoak, batzuetan bertakoei baino gehiago ematen zaielarik. Baina integrazioa ez da administrazioarena bakarrik, guztiona baizik, bai iristen denarena eta baita hartzen duenarena ere. Elkarren arteko errespetua beharrezkoa da. Inmigrantei ez zaio galdetu behar nondik datoren, elkarrekin nora goazen baizik. Inmigrazioa, sailkapen bereizgarri bezala desagertu behar da. Gizateria migrantea da izatez. Inmigrazio kontzeptua, kontzeptu politiko moderno da. Ez daude gizaki ilegalak, agiriak ez dituzten pertsonak baizik. Ditugun inmigratio politikoekin oso zaila dugu inmigrantei laguntzea. Nazioarteak jatorrizko herrialdeetan laguntza eman behar luke inor bere herrialdeetik atera beharrean egon ez dadin.

“Desberdina” denarekin harremana sortzen dugunean, bizipen eta esperientzia pertsonalekin, ezagutzen dugunean, beldurrak galtzen ditugu eta aurreiritziak desagertzen dira. Desberdintasunak errespetatzen ikasten da.



Solasaldiko hirugarren txanda: Nola gauzatu behar da, orain eta hemen, giza eskubideekiko gure konpromisoa?

Pertsonak eta jarrerak

Egunerokoa giza eskubideak urratzen ditugu. Giza eskubideak barneratu behar ditugu eta egunerokotasunean bizi. Besteak, diren bezala onartu behar ditugu. Hierarkia edo besteak baino gehiago sentitzea da giza eskubideen errespeturako oztoporik handiena.

Giza Eskubideen Aldarrikapena badugunez, ez dugu sentitzen aldarrikatzearen beharra. Pobrezia, bazterketa, giza eskubideen urraketetara ezin gara ohitu, egoera horiek ezin ditugu normaltzat jo. Ausartak izan behar dugu, ausardiaz jokatu eta urraketaren bat ikusten dugunean ezin gara isilik geratu. Ez da erakundeen zeregina bakarrik, guztiona baizik. Hala ere hainbat egoeratan zaila da giza eskubideen alde ateratzea norbera denean erasotua. Agintariak erreferente izan behar dute, modelo sinesgarriak.

Giza eskubideen urraketa salatzen dugunean, urraketa bera eta urraketa egiten duen pertsona bereizi behar ditugu, pertsona horrek bere duintasuna eta eskubideak ere badituelako.

Egi absolutuaren jabe garenik ere ezin dugu sinetsi. Entzuten jakitea, apalak izatea, enpatia izatea. Bestea bere testuinguruan eta ibilbide batean ikusi behar ditugu ulertu ahal izateko. Bere errealitatea ezagutu behar dugu. Ez ditugu pertsonak etiketatu behar. Zuzenak izan behar dugu aurretik juzgatu gabe. Isiltasunari bere lekua eman behar diogu, besteei entzun. norberari entzun eta bestea hauteman.

Ekintzak eta proposamena

-Heziketa eta sentsibilizazioa jotzen dira punturik garrantzitsuenak bezala. Etxean, eskolan, baloreetan eta giza eskubideetan hezitzea, txikitatik egin beharrekoa litzateke. Giza eskubideetan heitzeko eskola bat egon beharko luke. Heziketak ezagutzak ematen ditu baina ez du sentsibilizatzen ez bada praktikarekin uztartzen. Sufrimenduarekin bat egitea ahalbideratzen duten bizipenak sustatu behar dira, elkarriketa guneak sortu gure pentsatzeko era aldatu eta giza eskubideekin ditugun hesiak gainditzeko.

-Egunerokotasunean bizi behar ditugu. Ekintza txikiei bere balioa eman, etxetik hasi. Giza eskubideen konzientzia eragile bihurtu eta hau zabaldu.

- Gizadia gizatiartu.
- Autoestimua landu.
- Aldaketa pertsonala eta gizartearena biak batera egin.
- Gizartearen parte hartzea sustatu foroan, plataformen, manifestazioen eta antzekoen bidez.
- Elkarteetan giza eskubideen gaia landu.
- Giza eskubideak defendatzen dituzten gizarte erakundeei babesa eman.
- Gizarte erakundeetatik gobernuei presioa egin giza eskubideak bete ditzaten eta betearazi ditzaten.
- Gazteentzat foroak sortu, eurentzat erakargarriak izan daitezkeen hizlariak eramanez (aktoreak, kirolariak, abeslariak...).
- World kafe gehiago baina adin guztietako pertsoneri zuzenduta (gazteak, adinekoak).
- Kanpaina originalak, grafitiak, protesta abestiak sustatu,
- Udal mailan landu.
- Hiritarren behatokia sortu, gobernuen kudeaketa txarra ekiditeko edo bere eginbeharrak betetzen ez dituztela salatzen.
- Enpresarioei, beharrean dauden pertsoneri laguntzera animatu.
- Giza eskubideak errespetatzen ez duten politiko eta alderdiei botorik ez eman.
- Nazioarteko epaitegiak despolitizatu.
- Adierazpen kolektiboko giza eskubideak garatu behar dira.
- Bigarren eta hirugarren belaunaldiko giza eskubideak sustatu behar dira.
- Politika arauemaile aktiboak martxan jarri behar dira.
- Euskaldunon konpromisoa giza eskubideekin gauzatu eta kodifikatuko duen legea onartu.